

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****VITORIA-GASTEIZKO UDALA****EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA****Akatsen zuzenketa, 2020ko uztailaren 27ko ALHAOko (84.zk) 2020-02081 iragarkian, zein Ekintzaileei laguntzeko udal beka-programaren 2020ko deialdiko lehen fasearen ebazpenari buruzkoa baita**

I. Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2020. urterako, eta horien bigarren. apartatuan zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak, besteak beste, Enpresen Zerbitzuaren 25. ildoak, "Ekintzaileentzako beka" izenekoak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zk.).

II. Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2020ko martxoaren 6ko erabakiz (2020ko apirilaren 1eko ALHAO, 38. zk.).

III. Deialdiaren lehen faserako eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 15ean amaitu zelarik, fase horretan aurkeztutako eskabideen ebazpena argitaratu zen 2020ko uztailaren 27ko ALHAOn (84. zk.).

IV. 2020ko uztailaren 27ko idazki bidez, 2020ko uztailaren 27ko ALHAOn (84. zenbakia) argitaratutako ebazpen horretan akatsa zegoela jakinarazi zuen Udalaren Enpresa Zerbitzuak, hain zuzen ere ebazpen proposameneko hirugarren puntuko taularen goiburuan. Hau jakinarazten du, zehazki

Honela dioen lekuan:

DNI	Puntos	Subvención teórica	Importe final
-----	--------	--------------------	---------------

Honela behar du:

NANa	Puntuak	Dirulaguntza eskatua	Dirulaguntza emana
------	---------	----------------------	--------------------

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, administrazio publikoek "beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Deialdi honetan ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea.

Horren haritik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen hau eman du, eskumenak eskuordetzeko 2019ko irailaren 6ko erabakiak aitortzen dion eskumena baliatuz:

Ebazpena

Lehena. Akatsa antzeman delarik Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ekintzaileei laguntzeko udal-beken programaren 2020ko deialdiaren lehen fasean aurkeztutako eskabideei buruz 2020ko uztailaren 15ean emandako ebazpenean – 2020ko uztailaren 27ko ALHAOn argitaratua, 84. zk.,–, honako hutsen zuzenketa hau onartzea, hirugarren puntuan jasotako taularen goiburuari dagokionez:

Honela dio:

DNI	Puntos	Subvención teórica	Importe final
-----	--------	--------------------	---------------

Honela behar du:

NANa	Puntuak	Dirulaguntza eskatuta	Lehen ordainketa (ehuneko 50a)
------	---------	-----------------------	--------------------------------

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 3an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIÉRREZ